



FEDERACIÓN VASCA DE TIRO CON ARCO EUSKADIKO ARKU TIRO FEDERAZIOA

ERREKORRAK LORTZEKO ARAUDIA

- EUSKADIKO arku tiroko errekorra EATF/FVTako arkulariek lehiaketa ofizialetan lortutako emaitzarik onena da, betiere, Euskadiko Arku Tiro Federazioaren artxiboetan erregistratutakoak gainditzen baditu.
- Errekorrerako baliozkoak izango dira aire libreko eta aretoko tiro modalitateak, Arku Kurbatu, Arku Konposatu, Arku Tradizional, Long-Bow eta Arku Biluziko dibisioetan, bai gizonezkoetan, bai emakumezkoetan, eta federazio lizentzia izateko balio duten edo balio izan dezaketen klase edo enkoadratze guztietarako. Beraz, errekorretatik kanpo geratzen dira federazio lizentziarik gabeko eskola kiroleko arkulariak.
- Euskadiko Arku Tiro Federazioaren federazio lizentzia indarrean izatea beharrezkoa izango da errekorra eskatu eta lortu ahal izateko.
- Errekorra lortzeko baliozkoak diren lehiaketak honako hauek izango dira:
 - Espainiako Txapelketak.
 - Euskadiko Txapelketak.
 - Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako txapelketak.
 - Euskal ligak.
 - Eta FITA, RFETA edo WArek tiraldi ofizialak.
- Errekorra erreklamatu ahal izango da honako hauetan:
 - FITA 1440: distantzia bakoitzean eta guztizkoan (distantziaren bat eskatu ahal izateko, seriea osatu behar da).
 - 2X70, 2X60, 2X50, 2x40 eta 2x30, bi serieak guztira zenbatuta bakarrik erreklamatu ahal izango da errekorra.
 - 2X18: aretoan, bi serieak guztira zenbatuta bakarrik erreklamatu ahal izango da errekorra.
 - FITA 900: Tiraldi ofizialik ez dagoenez, homologatu egin beharko dira (errekorra homologatu ahal izateko, gutxienez 25 arkulariko eta epaile bateko tiro lerroa egon beharko da), eta distantzia bakoitzean eta guztizkoan eskatu ahal izango dira errekorrak.

Errekorra eskatzeko, arkulariak, lehiaketa amaitu ondoren, dagokion errekorra eskatzeko inprimakia bete beharko du. Epaileak, puntuazio orrian jasotako emaitza egiaztatu ondoren, inprimakia sinatuko du, eta antolatzaileak eta kirolariak ere sinatu behar dute. Eskaera inprimakia bete ondoren eta dagozkion sinadurak jasota dituela, kirolariak federaziora bidali beharko du. Era berean, epaileak lehiaketaren aktan jasoko du errekor hori, eta federazioari bidaliko zaio, hark aitortu eta argitaratu dezan.



FEDERACIÓN VASCA DE TIRO CON ARCO EUSKADIKO ARKU TIRO FEDERAZIOA

Errekorra behin baino gehiagotan hautsiz gero, denboraldia amaitu aurretik lortutako azkena bakarrik hartuko da halakotzat. Bi arkularik errekorra aldi berean eta puntuazio berarekin erreklamatzeko badute, bi tiratzaileei emango zaie. Une eta tiraldi desberdinetan erreklamatzeko gero, eskatu duen lehenengoari emango zaio.

Arkulari bat berea baino goragoko kategoria batean inskribatuta badago eta bere kategoriaren errekorra gainditzen badu, arkulari horrek bere kategoriari dagokion errekorra eskatu ahal izango du.

Euskadiko errekorrak hautsi eta hurrengo astean argitaratuko dira (ahal den guztietan).

Errekorra lortzeak ez du sari material edo garaikur espezifikorik ekarriko.

Euskadiko Federazioak askatasunez erabakiko du errekorra lortu izana aitortzeko ikurren bat ematea edo ez. Eta izatekotan, denboraldi bakoitzaren amaieran errekorra duenari emango litzaioke, dagokion Euskadiko Txapelketan.

Arkulari bati lehiaketan bertan errekorra kendu ahal izango zaio, EATF/FVTAk diziplina zigorra ezarri diolako.

Araudi honek 2015-04-10eko aurrekoa ordeztzen du.

Gasteizen, 2025-10-07an





FEDERACIÓN VASCA DE TIRO CON ARCO EUSKADIKO ARKU TIRO FEDERAZIOA

FORMULARIO DE SOLICITUD DE RECORD DE EUSKADI / EUSKADIKO ERREKORRAREN ESKAERA INPRIMAKIA

DATOS DE LA ARQUERA O ARQUERO / KIROLARIAREN DATUAK	
NOMBRE y APELLIDOS:	LICENCIA:
IZENA ETA ABIZENAK:	LIZENTZIA:

DATOS DE LA COMPETICION / TXAPELKETAREN DATUAK	
NOMBRE:	
IZENA:	
ORGANIZADO POR:	FECHA:
ANTOLATZAILEAK:	DATA:

AIRE LIBRE AIRE ZABALA	MU	HO	CLASES MAILAK		DIVISIONES MODALITATEAK		
SALA ARETOA			VETERANA/O BETERANOA	SENIOR SENIORA	RECURVO BIRIBILDUA	COMPUESTO KONPOSATUA	INSTINTIVO INSTINTIBOA
			JUNIOR JUNIORA	CADETE KADETEA	DESNUDO BILUZIA	LONGBOW LONGBOW	

DESCRIPCIÓN DEL RECORD / ERREKORRAREN DESKTRIBAPENA	PUNTOS /PUNTUAK

DATOS JUEZA - JUEZ / EPAILEEN DATUAK	
DON/DÑA:	LICENCIA:
JAUN/ANDRE:	LIZENTZIA:
CERTIFICA que esta competición se ha celebrado cumpliendo el reglamento de obtención de record de la FVTA en vigor Lehiaketa hau FVTA-ko errekorren lorpeneko araudia betez ospatu dela ziurtatzen du	

FIRMA DEPORTISTA
KIROLARIAREN SINADURA

FIRMA y SELLO ORGANIZADOR
ANTOLATZAILEAREN SINADURA ETA ZIGILUA

FIRMA JUEZA/JUEZ
EPAILEAREN SINADURA

Lo que firma a _____ de _____ de _____ -ko _____ -aren _____ -an sinatzen du

El o la solicitante deberá enviar este documento completado a la FVTA , vía E-Mail: tiroconarco@euskalkirola.eus, hasta el martes siguiente al día de la competición, antes de las 20:00 h/ Eskatzaileak dokumentu hau bidali behar izango du posta elektronikoz, osatu ondoren, FVTA-ra: tiroconarco@euskalkirola.eus, lehiaketaren egunaren hurrengo asteartean 20:00-ak baino lehen.